

## EDITORIALA

### Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

*Uztaro* 56 honetan bost artikulu aurkezten dira. Gaien edukiगतik originalak bezain interesgarriak deritzegu zenbaiti, eta tradizionalago eta ohikoagoak besteren bati. Baina, oro, gutxiago edo gehiago, ikerketa-ekarpenzat jotzeko dohainez beteta. Zehazki eta banan-banan komentatuko ditugu.

“Euskal armak Asian. Armagintzaren historiaren istorio bat” artikulua industria horren ekoizpenerako esportazio-bideen garrantzia eta nondik norakoak aztertze-  
ra dator. Euskal armagintzan aldaketa nagusiak gertatu ziren XIX. mendearen azkeneko laurdenean. Konbentzioaren kontrako gerran espainiar monarkiak Asturiasen lantegi publiko berri bat sortzea erabaki zuelarik, Soraluzeko lantegiaren arazo estrategikoak agerian geratu ziren. Armen merkatu pribatura zuzendutako armagintza baten hastapenak izan ziren. Aukeretako bat ehizarako armak egitea zen eta batzuk horretan jardun ziren, baina benetan arrakasta izan zuen aukera arma laburrena izan zen, hasieran errebolberrak eginez eta, beranduago, XX. mendean, pistola automatikoak ere bai. Salmenta horien gehiengoa esportazioak izan ziren. Espainiar legediak patentei dagokienez ematen zituen erraztasunen ondorioz XIX. mendearen azken laurdeneko arma berri guztiak patentatuak izan ziren. Tailer txikiz osatutako sarea zelarik nagusi, ordea, kalitate altuko altzairua erabiltzea ezinezko gertatu zen. Hori bai, oinarrizko hezkuntza jasotako eta euskara hutsez aritzen ziren enpresaburuak ziren. Lehen Mundu Gerraren aurreko hazkundea eskari zibilari loturikoa izan bazen ere, hazkundearen gailurra Lehen Mundu Gerrako urteetan lortu zen. Eibar motako pistolen arrakastari esker. Ondotik, azpimarratzekoa da 1920an Espainiako gobernuak armen salmenta eta merkataritza arautu eta kontrolatzeko asmoz onartutako legedi berria. Armak erosteko orduan beharrezkoa zen buroraziaren parte-hartzea handitu zuen. Arma baten jabe izatearen kostua ere izugarri handitu zen. Administrazioari borroka egin bazioten ere, ez zuten lortu erabakia alda zezan. Horrela, euren ekoizpenaren dibertsifikatze-prozesuak gauzatzen hasi ziren.

Baina, 20ko hamarkadan erakunde ofizial anitz arma laburren erabilerarekiko politika aldatzen hasi zen. Gernika-Lumoko Unceta y Cía-k espainiar armada-  
rentzako pistolak hornitzeko konkurtsoa irabazi zuen. Eta Eibarko Bonifacio Echeverría-k Guardia Zibileko tropa-gizonak hornitzeko eskaria jaso zuen. Horrela, enpresa hauek kontratu publikoen babespean jarri ziren.

Hirugarren enpresa bat ere aipatu behar da, hots, Beistegui Hermanos. 20ko hamarkadan bizikletak egiten hasi zen, baina, bere enpresa-jardueraren urterik ospetsuenak armagintzan eman zituen. Bere armak marka ezberdinen pean saldu zituen. Unceta y Cía-k Eibarko tailerretan egindako Eibar motako pistola eta errebolberrei bere jabetzako merkataritza-marka ezarri zien, esportatzea erabaki zuen eta Alemaniara bidaltzen hasi zen. Hogeiko hamarkadaren erdialdean hasi ziren japoniar inportatzaileekin harreman zuzenak izaten. Hasieran, Espainiak

leku haietan zituen ordezkari diplomatikoei gutunak bidaltzen zizkieten merkatuaren berri jakiteko.

Kobe hiriko merkatariari egin zitzaizkien salmenta gehienak. Lote eta itsasontzi ezberdinetan armak desmuntaturik bidaltzea eskatzen zuten. Armak, lehenengo, Anberesera bidali behar ziren. Erabili zen bankua Londresen egoitza zeukan Yokohama Specie Bank banku japoniarra izan zen. 1924ko azaroaren 1ean Ernest Borchers alemaniarra kontratatu zuten. Euskal armak ez ziren Japonian saltzen, Kobetik Txinara bidaltzen baitziren. Hango merkatua hurbilagotik ezagutzearan Borchers ordezkariaren bidez Mauser ereduko armak gustuko zituztela jakin zuten. Beistegui Hermanos-ek arma horren jatorrizko modeloa baino sinpleagoa izatea lortuko zuen produktua fabrikatu zuen. Salmentak garrantzitsuak izan ziren. Euskal armek, palanka txiki bati eraginez, su erdi-automatiko eta automatikoaren artean erabakitzeko aukera ematen zioten tiratzaileari. Bonifacio Echeverría-k, berriz, tiroen maiztasuna minutuko 1.000tik 384ra jaitea lortu zuen. Amaiera hasi zen 30eko hamarkadan. Nola Espainian hala Txinan izandako gertakizunen ondorioz bertan behera erori zen merkatua. Bigarren Mundu Gerraren garaian alemaniar armadari pistolak saltzeko aukera izan zuten.

“Psikologiako artikuluen azterketa *Uztaro* aldizkaria oinarri harturik” artikuluan, aldizkariak Psikologia arloan izan dezakeen garrantzia edo inpaktua neurtzeko irizpide bibliometrikoak erabiltzen dira. Aldizkari zientifikoak ebaluatzeko erabiltzen diren adierazleak aplikatzeko erraza delako hautatu dela Psikologia arloa adierazten zaigu. Izan ere, aldizkari zientifikoak ohiko aldizkari akademikoen ezaugarriak betetzen baititu. Inguma datu-basea ere erabiltzen da auzia testuinguru zabalagoan kokatzeko. Inguma datu-basean katalogatutako 8.141 artikuluetatik 74 Psikologiari buruzkoak dira. Hala ere, Psikologiaren inguruan idatziz ekoizitakoa % 27 da bakarrik. *Uztaro* aldizkarian kontzentratzen da artikuluen % 58. Batez beste 1990ean abiatu zenez gero *Uztaron*, urtean, Psikologiari buruzko 3 artikulua argitaratu dira. Hiru une bereizten ahal dira. Bigarren eta hirugarren uneetan Psikologia arloko artikuluen presentzia produkzio osoaren barrenean adierazgarria gertatzen da. Artikulu horietariko % 46,51 egile bakarrik ekoitzi du. Gainerako euskal aldizkarietan Psikologiako artikuluen % 81,25 egile bakar baten lana denean. Argi dago, bada, *Uztaro* dela goi-mailako aldizkari zientifiko baten ezaugarriak hobekien betetzen dituena. Bestalde, 52 egilek artikulua bakarrik idatzi du eta 26k bi edo gehiago. Gehienak (% 80,7) EHUko irakasleak dira. Ondotik aipuen azterketara igarotzen da. Aipuen eskuzko kontaketa egin da aldizkari-iturriak zuzen-zuzenean kontsultatuz. 4 aipu aurkitu dira, baina denak autoaipuak dira. Beste euskal aldizkari batzuetan egon litezkeenak aztertzean honekin aurkitu gara: *Bat Soziolinguistika Aldizkarian* aipu bakarrik aurkitu da. *Gogoa* aldizkarian aipu bakarrik ere. *Tantak* aldizkarian bi aipu agertzen dira. HABEk argitaratzen duen *Hizpide* aldizkarian bi artikuluren aipuak topatu dira. Gaztelaniazko Psikologia arloko aldizkarietan *Anales de psicología* aldizkarian bakarrik aurkitu da autoaipu den aipu bat. Espainiako arloko adituen ezaugarriekin alderatzen da segidan. Adituei inkesta bidez, beraien jakintza-arloko espainiar aldizkariaren zerrenda bat baloratzeko eskatu izan zaie lau kategorien arabera. Nonbait inork ez du, edo oso aditu gutxik, aipatu dute *Uztaro* eta horregatik ez da zerrendan agertzen. Badirudi Psikologia arloko espainiar adituek ez dutela atzerrian argi-

taratzeko ohiturarik. 2000 eta 2001ean aldizkari espainiarretan argitaratutako artikulua aztertzea igarota hauxe agertzen zaigu: 33,73 aipu dituztela, eta horietarik 2,36 espainiar lanei dagozkiela. Euskaldun adituek, beren aldetik, beste horrenbeste egiten dute aipu gehienak atzerriko lanei eginez eta aipu bakar batzuk Espainiako *Psicothema* edo antzeko aldizkariei. Psikologia eta Historia arloetako euskal artikulua konparatzen dira jarraian. Psikologia arloko 78 artikulua 12 aldizkaritan aurkitu diren bitartean, Historia arloko 301 artikulua 62 aldizkaritan aurkitzen dira. Psikologia arloan *Uztarok* artikulua gehienak kontzentratzen dituen bitartean, Historia arloko % 4 argitaratzen du soilik. Ondorioa hauxe da: euskal aldizkarien artean *Uztaro*, *Egan*, *Vasconia*, *Bidebarrieta* eta RIEV direla ohiko aldizkari zientifikoen moldeetan ekoizten duten aldizkari bakarrak. Bradford-en legea aplikatzen badiogu, berriz, ikus daiteke une honetan euskarazko Psikologia arloko artikuluen produkzioa heldu gabe dagoela. Batez besteko bizitza ere desberdina dute. Historiako artikuluek 11 urtekoa dute eta Psikologia arlokoek, aldiz, 7 urtekoa. Historia eta Psikologiako egileen curriculumean *Uztarok* garrantzi desberdina dauka. Psikologiako egileentzat *Uztarok* garrantzi handia du euskarazko curriculumean. Ondorio orokor bat ateratzean hauxe dugu: euskarazko produkzioa, hizkuntza gutxiagotu batean badago ere, ez da salbuespenezkoa. Azken 35 urteotan asko hazi da eta normalizazioaren bidea egiten ari da. Bibliometriako legeak ere betetzen ditu.

“Artikulua eta bokal paragogikoa Bermeoko leku-izenen corpusaren azterketatik abiatuta” artikulua, Bermeoko leku-izenen bilketa egin dutenek ekarritakoaren gainean eraikia dago. Ahozkoa jaso izan da Bermeoko baserri guztietara joanez. Idatzizkoa, berriz, artxiboetan bilatu da. Nabarmen gelditu da artikulua ahozkoan ez zela ia erabiltzen, eta lan bibliografikoetatik eta artxiboetako agerietatik jasotako leku-izenetan ere ez zela era sistematikoan agertzen. Artikulua leku-izenetan pixkanaka sartu da. Irizpide nagusia da artikulua generikotasunetik hurbil daudenean agertzea. Izen espezifikoean ez dago artikulurik. Ezaguna da kontsonantez amaitzen diren izen askok atzetik *-e* hartzen dutela. Horri bokal paragogikoa deritzo. Argi dago eskribauek eta notarioek *-a* bukaeradun aldaerak jendeak baino errazago erabiltzen zituztela kontsonantez bukatutako izenetan, bokal paragogikodun aldaerak baino. Horren arrazoa gaztelaniaren eragina da. Azentuazioaren aldetik batez ere. Azken silaban azentua duten leku-izenak, *-a* bokala gehituz gero, oxitono izatetik paroxitono izatera igarotzen dira eta gaztelaniaren arauetara errazago egokitzen dira. Beste batzuetan, eskribauek bokal paragogikoa itxiztat hartzen dute eta *-e > -a* bilakatzen dute. Eskribauen gaztelaniaren azentuaren arauetara egokitzeko joera hau XIX. eta XX. mendeetan gauzatu zen. Bokal paragogikoa ere pixkanaka sartu izan da. XVII. eta XVIII. mendeetan aurkitzen dugu lehen aldiz. XIX. mendean bere erabilera sendotu egiten da. Baserri-izenetan nagusi diren *-a* bukaeradun aldaerak *-e* bokal paragogikodunekin txandaten dira XVIII. mendearen hasiera-hasieratik. Paraje-izenetan, berriz, badira artikulurik jaso ez dutenak ere. Horrelakoetan, kontsonante hutsez bukatutako aldaerak paragogikodunekin txandaka agertzen dira. Gaur egun, bokal paragogikoaren erabilera zeharo hedatua dago.

“Eskola-irratia, komunikabidea tresna pedagogikoa bihurtuta” artikulua azpimarratzen dator hezkuntzaren alorrean hedabideen erabilerak, hots, eskola-irratia

beharko lukeen leku garrantzitsuagoa. Gizartean eztabaida irekia da komunikabideen eraginaz. Batzuen iritziz gurasoek gehiegizko tokia hartzen uzten diete beren haurren heziketan. Orain adierazten zaiguna da hedabideen ezaguera sakonagoa izan beharko litzakeela eskola-material egokia izan dadin. Eta bat hautatzen hasita irratia proposatzen da ahozko hizkuntza lantzea ahalbidetzen duelako. Irratia, horrela, ikasmateriala eta ikasgaia baino zerbait gehiago ere badela adierazten zaigu. Irakasleen trebakuntza eta teknologia berrien erabilera bultzatzen dituelako; ikasleentzat tresna dibertigarria izan daitekeelako; guraso-elkartearen eta ikastetxearen arteko zubi egin dezakeelako. Curriculumaren eremutik harago joan beharko luke irratia erabilerak. Familia erdaldunetatik datozen haur eta gazte askok eskolan daukate euskarekiko harreman bakarra. Eskolaz kanpoko harremanetan zaila egiten zaie euskaraz aritzea. Eginkizun horretan lagungarria izan liteke eskola-irratia edo irratitailerra. Modu dibertigarrian hiztegia aberasteko aukera eman diezaieke eskola-irratia haur horiei. Horretarako, irizpide batzuk bete behar ditu irratia. Irrati-mezua zehatza izan behar da aditu bezain laster ulergarria gerta dadin. Ikaslearen ahozko adierazpena hobetzeko aukera ere izango litzateke. Ikasleek eskolan, oro har, idatzizko adierazpenean oinarritutako trebakuntzak lantzen dituzte: idazlanak, diktaketak, azterketak eta abar. Oso gutxi, ordea, ahozkoak. Irakurketa espresiboa ikasteko ere tresna apartekoa da irratia. Bat-bateko diskurtsoak ere badu lekua irratian. Ingurunean gertatzen denaz jabetzeko aukera paregabea ere bada. “Hartzaile” pasibo izatetik “igorle” aktiboak izatera igarotzen gara irratia bidez. Haurrak jaso behar dituen balioei ere erantzuna eman diezaieke eskola-irratia heziketak: erantzukizuna, ardura, autonomia, elkarlana eta partaidetza landuz. Kritikoagoak izan daitezke. Gatazkak gainditzeko ikasgaia ere izan daiteke. Sormena landu eta ingurune batean integrazteko abiada ere ekar dezake. Edukiak, berriz, adinaren arabera izan behar ditu. Gaur egun, ikastetxe gehienetan dagoen informatika-gelatik egin eta emititu daitezke irratsaioak. Irratsaio baten eraketa oso ondo planifikatu behar da edukiekiko eta horretarako ezinbestekoa da gidioa. Barren ditu pautak, hots, hezurdura jarriko duen lehen gidoi eskematikoa, eta gidoi literarioa edo alde argumentala azalduko duena.

“Autokontzeptu fisikoa neurtzeko galdesorta berri baten propietate psikometrikoak: Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketa (AFI)” artikuluak autokontzeptu fisikoa neurtzeko euskaraz idatzitako galdesorta berri bat aurkezten du. Sarrera deituriko lehen aipamenetan autokontzeptuaren inguruan eta bereziki autokontzeptu fisikoaren inguruan egondako ezagutzaren bilakaera laburtzen da. Euskarazko galdesorta sortzen nola hasi ziren adierazten zaigu. Generoari dagokionez, autokontzeptu fisikoaren galdesorta batzuetan azalduko datuek diote desberdintasunak daudela gizon eta emakumeen artean eta, gizonen faboretan ematen direla. Kirola egiten dutenak edo noizbehinka egiten dutenak ere hobeto hautematen dira, batez ere, trebetasun fisiko eta sasoi fisikoaren azpidomeinuetan. Ikerketa honek helburu nagusizat du Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketa (AFI) galdesortaren propietate psikometrikoak konprobatzea. Erabilitako metodoa zehatz-mehatz aipatzen da. Lehenengo fasean galdesorta esperimentalak aplikatu zen Likert moduko eskala baten arabera puntuatuz. Bigarren fasean 36 itemetik 30ra murriztu zen. Emaitzak datoz ondotik. Galdesorta definitiboa eta irizpide-balioetasuna aipatzen dira. Eztabaida orduan azkeneko produktua galdesorta independente bat

dela azpimarratzen da. AFIren ezaugarri psikometrikoak esparru honetan onartuak eta erabiliak diren galdesorten antzekoak dira. Autokontzeptu fisikoaren lau azpidomeinuko egitura partziala egiaztatua gelditu da. Generoari dagokionez, gizonezkoek emakumezkoek baino emaitza garaiagoak azaldu dituzte. Azkenik, kirola egiten dutenak ez dutenak baino hobeto hautematen direla egiaztatuta da.

